



Arartekoaren 2015R-1147-15 Ebazpena, 2015eko urriaren 19koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari 1/2007 Zuzentarauaren barruan beste mediku baten iritzia jasotzeko eskubidearen egikaritzea sartzea gomendatzen zaio.

Aurrekariak

Ondoko hau izan da kexaren karia: beste autonomia erkidego bateko osasun-sistema publikora jo zuen paziente baten joan-etorriak eta egonaldiak ordaintzeko dietak jasotzeko eskabidea ukatu izana. Paziente hori beste mediku baten iritzia jasotzeko jo zuen beste autonomia erkidego batera, Osasun Sailak baimendu ondorik.

Guk egindako informazio-eskaerari erantzunez Osasun Sailak azaldutakoaren arabera, eskabidea ukatzearen arrazoia honakoa da: 1/2007 Zuzentaruari jasotzen denez, EAEtik at jasotzen den osasun-zerbitzua Euskadiko Osasun-Sisteman ezin eman daitekeenean soilik eman ahal izango dira joan-etorriak ordaintzeko dietak. Sailak uste du kasu honetan ez dela berariaz osasun-zerbitzurik jaso, bigarren iritzia baizik, eta horrek ez du esan nahi kasu horri dagokion osasun-zerbitzua Euskadiko Osasun-Sisteman ezin eman daitekeenik.

Aurrekari hauek aztertu ostean, ondokoak dira egin ditzakegun

Gogoetak

1/2007 zuzentaruak, joan-etorriak ordaintzeko laguntzei buruzkoak, zerbitzu-zorroaren barruan ez dagoen prestazioa araupetu du; horrek, printzipioz, hautabide-marjina ematen dio Osasun Sailari bere esparrua taxutzeko. Ikuspegi horretatik abiatuta, osasun-zerbitzua jasotze aldera erabiltzaileek Euskadiko Osasun-Sistematik kanpo dauden osasun-zentroetara joan behar duten kasuez mugatzen du bere eremua.

Honakoa izan da osasun-administrazioaren ukoaren funtsa: bigarren iritzia jasotzeko eskabidea izan dela, ez Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) ematen ez den osasun-zerbitzua.





Ezin dezakegu esan ukoa arbitrarioa izan denik. Bigarren iritzia eskatzeko eskubidea arautzen duen arauak berak ere (irailaren 18ko 149/2007 Dekretua) interpretazio hori egiteko bidea ematen du; interpretazio horren arabera, bereizi egin daitezke, alde batetik, osasun-zerbitzua eta, bestetik, beste iritzi bat jasotzeko eskubidearen egikaritzea. Gai horri dagokionez, haren 7. artikuluan ezarririk dagoenez, bigarren iritzia eskuratu ondoren, osasun-zerbitzua jatorrizko osasun-zentroan emango da, baldin eta bigarren diagnostikoak lehenengoa berresten badu. Hala gertatu ezik, osasun-zerbitzua bigarren iritzi medikoa eman den osasun-zentroan jasotzeko aukera hautatu ahal izango da.

Arestion adierazitakoa kontuan hartuz, baina, uste dugu ezen, 1/2007 Zuzentaraua aplikatzearen ondoretarako, banaketa hori ez litzatekeela kontuan hartu behar laguntzen eskabidea ukatzeko. Gure ustetan, bigarren iritzia jasotzeko joan-etorriak ordaintzeko gastuak onartzeak ez du aipatu dugun zuzentarauean ezarririk dagoena urratzen.

Bigarren iritzia jasotzeko eskubidea egikaritzea pazientea jasotzen ari den osasun-zerbitzuaren ondoriozko aukera da, eta beraz, bai osasun-zerbitzua eta bai bigarren iritzia jasotzeari dagokionez, EAetik kanpo jasotzeko baimena salbuespenezko kontua da, zerbitzu hori arrunki EAEn eskaini ezinaren kariz. Bigarren iritzia jasotzeari doakionez, honakoa dago ezarririk arauan: teknika diagnostiko edota terapeutikoren baten inguruabar bereziak direla eta horrela jokatu behar den kasuetan, teknika horiek beste autonomia erkidego baten osasun-sistema publikoaren barruan dauden osasun-zentroetan edo zentro itunduetan jaso ahal izango dira, betiere Osasun Sailaren baimena jaso ondorik.

Gure aburuz, bigarren iritziaren eta osasun-zerbitzuaren arteko banaketa ezin daiteke erabatekoa izan. Gure ikuspegi hori argitzeko asmoz, A Coruñaeko Probintzia Auzitegiaren epai honen funtsa (JUR\2006\287312) ekarri dugu (espediente honen funtsaz bestelakoa den funtsari buruzkoa da epai hori).

5.- Gastos. A su vez este apartado se puede subdividir en varios.

5.1.- Gastos médicos reclamados por la lesionada, así como desplazamientos a Madrid a ser reconocida por especialista. Si bien es admisible una segunda opinión médica sobre las lesiones y secuelas procedentes del accidente, lo que no debe serle repercutible a los obligados a pagar, son los gastos derivados de la voluntaria elección de la reclamante, que decidió por su cuenta ser examinada en la capital de España, sin que se haya acreditado la necesidad o conveniencia de hacerlo allí porque en Santiago no hubiera concretos especialistas en la materia. Se admite por





tanto la reclamación de 320 euros de médico, no los gastos de avión y taxi en Madrid.

Ekarri dugun funts horrek bigarren iritziak eta osasun-zerbitzuak elkarrekin duten lotura islatzen du, eta hainbestez, laguntza-zerbitzuaren kostua onartzen da; ordea, ez da joan-etorriak ordaintzeko gasturik onartzen, ez baita egiaztatu pazientearen bizilekutik hurrago dagoen espezialistarik ez dagoenik. Beraz, ikuspegi horren arabera, uste dugu bigarren iritzia eta osasun-zerbitzua ez direla elkarrengandik bereizirik dauden bi gai, 1/2007 Zuzentaraua aplikatzearen ondoretarako.

Egia da bigarren iritzia jasotzeak ez duena halabeharrez eragiten ondorengo osasun-zerbitzua Euskadiko osasun-sisteman burutu ezin izatea. Horrela izatea edo ez izatea, 149/2007 Dekretuaren 7. artikuluan ezarririk dauden inguruabarren arabera izango da. Gogoeta honekin, baina, ez dugu esan nahi EAEn osasun-sistema publikotik at bigarren iritzia jasotzeko joan-etorrietarako laguntzak ondorengo osasun-zerbitzua ere kanpoan eman beharrezkin loturik daudenik.

Gure aburuz, 2. iritzia jasotzeari doazkion laguntzak 1/2007 Zuzentaruak arauturik dituen dieten barruan sartzea eskubide hori EAEn egikaritu ahal izatearen edo ezin izatearen pentzurakoa izango da.

Gogoeta hau ondo oinarriturik dagoela uste dugu, zeren eta eskubide hori egikaritze aldera EAEn osasun-sistema publikotik at dagoen beste zentro batera jotzea ez da erabiltzailearen aukera librea, baizik eta salbuespenezkoa, baldin eta arestion aipatu dun 149/2007 Dekretuaren 7. artikuluan ezarririk dauden inguruabarrak geratzen badira.

Ezin daiteke esan bigarren iritzia osasun-zerbitzuari loturik ez dagoenik, eta kanpora joateko aurretiazko baimena bidezkotu duten inguruabar berek balio behar lukete joan-etorriak ordaintzea xede duten diru-laguntzak onartu ahal izateko.

Bigarren iritzia 1/2007 Zuzentaruaren beren beregi aipatu ez izanak ez du esan nahi hura halabeharrez baztertu behar denik. Osasun-zerbitzuari dagokion kontzeptutik banatzea ezin planteatu daiteke modu hain absolutuan.

Gogoeta hauekin eta erakunde hau sortu zuen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarririk dagoenarekin bat etorriz, bidezkoa jo dut zuri ondoko gomendio hau helaraztea.





GOMENDIOA

Bigarren iritzi medikoa eskatzeko eskubidea baliatzea arautzen duen irailaren 18ko 149/2007 Dekretuko 7. artikuluari jarraiki baimendutako joan-etorrien kasuan, mantenu-gastuen ziozko laguntzak arautzen dituen 1/2007 Zuzentarau Orokorraren esparruan, kontuan har daitezzen Osasun Departamentuak osasun arreta aseguratzen dien herritarrei osasun garraioa ez den beste garraio batean egindako joan-etorriak eta egonaldia.

